

## KARDANTXOLOA ETA ORMATXORIA

(IPUYA)

Kardantxolo atsegin batek  
eguzkia zuan agurtzen,  
jafirrik zuaitz-abarian  
goizian-goiz alai abesten.

Somatu zuan ba onetan,  
egun baten ormatxoriyak,  
eta esan zion berari  
destañez ezerez aundiyak:

—Kardantxoloa: zuk egunak  
damaskizuz txoro abesten,  
bañan lan ori jail gaxo oreak,  
ez dakizu egoki eiten.

Zuk baño, uretxindořak du  
asko egokigo abesten

jai zein ederki, zein gozoro,  
ařek dakijan, bai, jarduten!

Kardantxoloak erantzun zuen:  
—Ořela ba, ormatxoriya,  
irakatsi eidan len-bai-len  
ik, uretxindoř—abestiya.

—iNi ene kardantxolo maite!  
řnik irakastia ta, nai den?  
řez dakin nik ez dakidala,  
ez ondo, ez gaizki, abesten?

—řEta ik, txoro aundi-aundiya,  
inogatik jardun beař den...?

iBestetako ez dan guzia,  
maiseatzeko izan oi den!

TENE.

## Ama Neskutza'ren ogiya

Atozte onera, ene semetxubi, onela ... onuntuago. Oraintxen edestuko dizutet ipuin bat, Ama Neskutza'rekiko opa asko eskeniko dizkiyoztelata agintzen ba-didazute. Bayetz erantzunik, onela dařai amak:

Didakatxu, sei urtedun mutil on ta maitagarř bat, unezurtza zan; bere aita nekazariya ařobi batian lanian zala, il zan arřpil batekin; ama bere senařaren eriyotz-ikaragariya jakiřnik, gaxotu zan, eta il-zoriyan zegoela, esan ziyon Didakatxu'ri: ene kufuna, ludiyan bakařik usten zaitut, donokira nua, bařan ni baño amatu maitekořagna lagatzen dizut, Ama Neskutza, ama ořek etzaitu utziko, biyotz-suturik maite ba-dezu, eta musu luze bat emanik begiyak betiko itxi zituen gaxuak.

Bere amaren azkenezko esakunaz etzan bere bizitzan aztu, ta sařitan bere bařuan erabilten zituen amaren itzak: «Donokiyari dezu Ama Neskutza,» «ta donoki bertan besařkatuko gera.» Bere burubari galdezka řebilen: řnon izango ote-da donokiya?: donokiya gauz pozkařiya izan bialda, nere gurasuak ara juateko utsi naute, ni ainbeste maite-ařen. Donokiyari gustiyak izango dute ogiya egun-egunero ta betiko. řZein atsegin! řBařan non bifatuko det donokiya?

Onela oldoztuten zijuala neke egiřaz erori zan basatxauno baten ate-onduan; ango txauño-zayak, emakume on-on bat zala galdetu ziyon: řNor zera? řNondik zatoz? Didakatxu det izena; nere gurasuak bakařik utsi naute donokira justiařen; amak bizitz-azkenian esan zidan, donokiyari ikusiko degula alkař. Bařan eztakit non dagon donokiya; asko ibili naiz, ta oraindik ezdet bifatu. Miren Andria (ala zertxon txauño-zaya) oso eřukituta bere senařaren baimenaz, bere semetzat ařtu zuen gure mutil gixaxua.

Egun batian galdetu ziyon Miren Andriari Didakatxuk řzergatik enazu donokira eramaten? řgurasuak ikusteko opa det eta.

Bere jolas gustiyya Ama Neskutza'gan zeukan eta asti luzaruak igazten zituen txauñuan otoizka: otoizak egiten ari zala egun batian Nekezko Amaren ařpegi suřbil eta mia ikusirik, iruditu zitzaion, zurbiltasun eta metasuna gosez izango zuela, ta erabaki zuen ogi-puxka bat egunero ekařtzia.

Bijaramonian ara zijuan Ama Neskutza'rengana bere kolkuan ogi-zali bat zeramala; Neskutz-antzez kiyaren mai baten ganiari utsi zuen ogi-zatiya, ta biyotz-biyotzez esa ni ziyon: Ařtu, Ama; ba-dakit zer dan gose-izatia.

Uřegun egunian juan zanian ogiya etzegon eta poztu zan Ama Neskutza'k ogiya jan zuelako ustian. Bein esan ziyon Miren Andriari, ogi-puxka Ama Neskutza'ri eraman-ařen, etzala sendatzen eta margo oneko ařpegiya eřzuela ařtzen.

Txauno-zaya, ori jakin zuenian zugatz-baten atzian jariya, ikusi zuen beste mutil txoro bat otoitz bat egiřezkero ogi-puxka gordetzen zuela bere kolkuan.

Mutilari galdetu ziyon, zeregiten ari zan, eta berak erantzun ziyon, beste egunian eskatu ziyola Ama Neskutza'ri janariya, ta egun-egunero jartzen ziyola Neskutza'k ogi puxka bat.

Ipuin au amaiturik amak ziyon semetxubi: Asko maite ezazute Ama Neskutza mutil bi ořek bazela



## GEURE ESKUBAN DAGO

Zorabijauta lez ikusten doguz egunokaz ludijan egiten diran aldakuntzak.

Wilson'ek esan dau guda onen ostian egingo dan bakia etengo eztan bakia ixan bial dala, ta bake ori ausi eztařtat eřijak, txikijak eta andijak, azke ta buru-nauri ixan bial-dirala.

Wilson'ek esana ontzat ařtu dade gustijak. Rusia, Ostefeitz eta Deutch-menbian dagozan eřijak buruba azkatzen diřardube; Praga urijan matxiřnada gogofa ixan da, ta lasteř polondafak, txekařak, eslabotařak-eta euren aberijak azke ikusiko dabez.

\* \* \*

Eta bifařtian řzer egiten dogu euzkotarařok? řZein -ete ixango da geure zorija Europa'ko zelai odoltsu-betan bakia zabalduko danian? řIraungo ete-gara Espana'k eta Pantze'k azpiratuta eřirik azkiena ixan garanok? Eři txikijen negařak legořtuko dauzan eguzkijak řez-ete-dauz Euzkadi'raño bere izpi edeřak bidalduko?

\* \* \*

Lasteř erabagiko da laterrijen zorija. Urtebetia une bat baño ezta eřijen biztaldijan. Eta, bialba, urtebetia bano lenago jakingo dogu zelan geratuko diran ludijan eři menbetubak, zelan geratuko dan gure eřijau.

Guda onek ekaři daun zorija lakorik řnoz-ete eukiko dogu? Gauř azkatasun-eguna zabaltzen asi da, ta bere ostian gaba datof bařiro. Gauř geure katiak nok ebagi bai-daukogu; bial geronek ebagi bialko doguz, ta bial ori eztakigu noz elduko dan. řTxiko ete-dogu, ba, olako ereti edeřa galtzen?

\* \* \*

Aspalditxutik ona asko aldatu da Euzkadi. Len jeltzaliak bakařik eskatuten eben azkatasuna; baņa orain, jeltzaliak eztiranak be geure abeřijau azkatu gura-dabe. Eta euzkotarařak gura ba-dogu geure buru-jaubetasuna řzegařik eztogu lořtuko?

Azkatasunaren gařaz Euzkadi sutau bial dogu. Buruba azkatu gura dogula entzun bial dabe, bai Espana'n eta bai beste atzeřijetan. Geure deya, geure oyuba, guda-santzua baxen zoli, eldu bial da eři makalak aldeztu bial dirala esan daunaganaño.

Olan egiřaz geure gurariya, Euzkadi azkatutia, lořtu daikegu. Baņa ixilik ba-gagoz, ez.

«Min-bako ařanak otsik ez» esaten eben geure asbeak. Eta zuzen egozan.

L.

